



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

### ARAMAKO UDALAREN 01-25 SAILA BOST URTEKO EPERAKO ERRENTAN EMATEKO BALDINTZA PLEGUA

Aramako udala honako lur sailen jabea da:

Iriarte baserriko lursailak izan ziren "Alforjas" eta "Arama soroa" izeneko lur sailak, gaur egun katastroan 01-25 partzela integratzen duena eta sailean egindako desjabetzen ondoren 8758 m<sup>2</sup> azalera duena.

2018ko urtarrilaren 24ean egindako udal batzarrean, lur sail hori arrendamentuan emateko deialdia egitea erabaki da.

Arrendamendua jarraian zehazten den baldintza pleguaren arabera arautuko da:

**EPEA:** Kontratu honek BOST URTEKO iraupena izango du, berau sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

**JABETZA:** Udal gorporazioak mantendu egingo du errentan emandako ondasunen jabetza.

**ERRENTAREN INPORTEA:** Oinarrizko errenta edo esakintzaren oinarria, urtean 75 euro ezarri da. Esleipendunek inporte hori hobetu ahal izango dute. Errentaren inportea behin betiko esleipenaren ondorioz ezarritakoa izango da. Urteko errenta inportea, kontratua sinatzearekin batera ordainduko da, eta hurrengo lau urtetako errentak, udalak urtero heleraziko dion errezioboaren bidez ordaindu beharko dira.

Esleipenaren ondorioz finkatutako urteko errenta, urtero urtarrilaren 1ean eguneratuko da, aurreko urteko Estatuko Kontsumoko Prezioen Indizean (KPIIn) oinarrituz.

**BERMEA:** Lehiaketan parte hartu ahal izateko, behin behineko bermea jarri beharrik ez da izango.

Behin betiko bermea: Behin betiko bermea BI urteko errentaren inporte berekoa izango da.

Esleipendunak kontratuaren esleipenaren jakinerazpena jasotzen duenetik aurrera, hamabost eguneko epea izango du behin betiko bermea eskudirutan uzteko.

Bermeak kontratuaren eginbehar guztiak beteko direla eta ustiapena proposamenean zehaztutakoaren arabera beteko dela ziurtatzeko ezartzen da.

Behin betiko bermea osatu ondoren, esleipendunak bi alderdiek hitzartutako kontratuan azaltzen den dokumentua sinatu beharko du adierazitako datan.

### MAIZTARRAREN BETEBEHAR ETA ESKUBIDEAK

- Errentan hartutako sailak txukun eta garbi mantendu beharko ditu.



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- Aurkeztutako proposamenean planteatutako eran aurrera ematea terrenoen ustiapena
- Ezindo du subarrendatu eta zuzenean arduratu beharko da bere ustiapenez
- Udal baimena beharko du terrenoetan proposameneanazaldu ez diren edozein iharduera edo obra egin ahal izateko.
- Debekatuta datgo baldintza-orri honen eskubideak besterentzea, subrogatzea edo ematea
- Debeku hauez ez betetzeak kontratua haustea ekarriko du, esleipendunak fidantza galduz. Gainera, hala badagokio, esleipendunak kalte-galerak ordaindu beharko ditu.
- Honako hauek ere kontutan hartuko dira:
- Itxiturak mantendu beharko ditu eta udalak horrela esaten dionean berriak ezarri. Egiten dituen hobekuntzengatik, ez du inolako indemnitaziorik jasotzeko eskubidea izango, eta terrenoen mesederako geratuko dira egiten direnak.
- Lur sailetan dauden arbolak errespetatu beharko ditu eta daudenen (tala osoa edo partziala) egitea Aramako udalak beretzak gordetzen du.
- Hirugarrengoei sortu diezaiketen kalteengatik aseguru egunean izan beharko du.

### PROPOSAMENAK AURKEZTEA.- AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, BETEBEHARRAK ETA AGIRIAK

#### 1.- Parte hartzeko eskaerak aurkezteko lekua eta epea:

Proposamenak udal honetako idazkaritzan aurkeztu beharko dira, jendaurreko arreta orduetan, goizeko 11etatik 14:00etara bitartean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatuta, hamabost eguneko epean.

Proposamena postaz bidaliz gero, eskaintzaleak igorpen-data ziurtatu beharko du, telex, telefax edo telegrama bidez eskaintza postaz igorri duela jakineraziaz kontratazio organoari egun berean.

Proposamena gutunazal itxian aurkeztuko da, udalak prestatutako ereduaren arabera.

#### AURKEZTU BEHARREKOAK.- Lehiaketan parte hartu ahal izateko honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

Proposamena

Eskatzailearen Nortasun agiria

Memoria: Lur sailean egin asmo duen aprobetxamendua zehaztuko da, larrerako den, ze ganadu mota larreratuko den, belar aprobetxamendua egingo duen e.a.

Itxituren mantenimendua edo berrien proposamena baloratuko da.

#### PROPOSAMENEN BALORAZIOA.- Eskatzaileen arteko balorazioa, aurkeztutako dokumentuen arabera egingo da.

Baloratuko da:

Aramako bizilaguna izatea

Proposatutako urteko errenta

Nekazaritza bere diru iturri bakarra izatea



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Ustiaketaren informazioa, makinaria, abereak e.a.

Arrendamendua Udalaren eta erabiltzaile eskatzailearen artean sinatuko litzatekeen kontratu bidez lotuko da. Lursailari dagozkion plangintza eta zehaztasun guztiak kontratuan jasoko dira.

Alokatzen diren lursailen mugakide diren partzelak jabetzan izatea.

Elkarhizketa egingo da lehiaketara aurkeztutako bakoitzarekin.

### INBENTARIOA

Lur sailaren egoerari eta itxiturei buruzko argazkiak aterako dira, kontratua indarrean jarri aurretik eta bertan dauden zuhaitzen inbentarioa egingo da. Kontratua amaitzean terrenoaren egoera baloratuko da eta inbentarioa egiaztatuko da.

### PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta 4. Egun baliodunean, kontratazio mahaiak eskaintzaileek aurkeztu dituzten proposamenetan ageri diren agiri orokorrak kalifikatzeari ekingo dio.

Mahaiak aurkeztutako agirietan akats formalak antzemango balitu, egokitzak joko balu, eskaintzaileari gehienez zazpi egun balioduneko epea eman ahal izango dio, hauek konpon ditzan.

Proposamenak baloratu ondoren, eskaintzaile bakoitzarekin elkarhizketa egingo da. Eskaera guztiak baloratu ondoren, behin betiko esleipenaren aldeko proposamena luzatuko zaio udal gorpোরazioari.

Udalak kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera, behin betiko erabakia hartuko du.

Jarraian esleipendunarekin errenta kontratua sinatuko da.

Araman, 2018ko urtarrilaren 18an.

Alkatea,

Idazkaria,

**DILIGENTZIA:** Nik idazkariak jartzen dut goian aipatutako araudia Aramako udalak 2018ko urtarrilaren 24ean egindako batzarrean onartu zela adierazteko.

Araman, 2018ko urtarrilaren 24ean.

Idazkaria